Bestelako Xedapenak

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

4465

EBAZPENA, 2010eko abuztuaren 3koa, Nekazaritza eta Landa Garapeneko sailburuordearena; honen bidez, 2010eko martxoaren 11ko Aginduan jasotako ekonomia-baliabideen zenbateko berria argitaratzen da. Agindu horretan, 2010eko ekitaldirako deialdia egiten da mendi nekazaritzako eremuetan landa garapeneko proiektu aitzindarietarako laguntzak emateko. Laguntza horiek Mendi nekazaritzako eremuetan landa garapeneko proiektu aitzindarietarako laguntzak arautzeko azaroaren 28ko 242/2000 Dekretuan aurreikusi ziren.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2010eko martxoaren 11ko Aginduko bigarren erabakian finkatu zen emango diren laguntzen kopuru osoa Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretatik aterako dela eta ez dela izango 216.434 euro baino gehiagokoa. Hala ere, eguneratu egin ahal izango da, indarrean dagoen legeriaren arabera aurrekontu-aldaketak onartzen badira. Aipatutako agindu horren bitartez, 2010eko ekitaldirako deialdia egiten da mendi nekazaritzako eremuetan landa garapeneko proiektu aitzindarietarako laguntzak emateko. Laguntza horiek Mendi nekazaritzako eremuetan landa garapeneko proiektu aitzindarietarako laguntzak arautzeko azaroaren 28ko 242/2000 Dekretuan aurreikusi ziren (EHAA, 108. zk., 2010eko ekainaren 9koa). Halakorik gertatuz gero, aldaketa horietatik datorren aurrekontuko diruizendapena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, Nekazaritza eta Landa Garapeneko sailburuordearen ebazpen baten bidez argitaratu ere.

Alde horretatik, Landa eta Itsasertzeko Garapeneko zuzendariak erabaki du, dagozkion izapideak egin eta gero, kreditu propioak 400.000 eurotan handitzea 2010. urterako. Beraz, deialdi horretan Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura 2010. urterako eman beharreko laguntzen kopuru osoa 616.434 eurokoa da.

Aurretik esandakoari jarraiki, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen Idazkera Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 49.2 artikuluan eta aipatutako 2010eko martxoaren 11ko Aginduan aurreikusitakoarekin bat etorriz, bidezkoa da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea aipatutako zenbateko-gehitze hori.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

4465

RESOLUCIÓN de 3 de agosto de 2010, del Viceconsejero de Agricultura y Desarrollo Rural, por la que se da publicidad al nuevo importe de los recursos económicos recogido en la Orden de 11 de marzo de 2010, por la que se procede a la convocatoria, para el ejercicio 2010, de las ayudas a proyectos piloto de acción rural en zonas de agricultura de montaña previstas en el Decreto 242/2000, de 28 de noviembre, por el que se regulan las ayudas a proyectos piloto de acción rural en zonas de agricultura de montaña.

En el resuelvo segundo de la Orden de 11 de marzo de 2010, de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, por la que se procede a la convocatoria, para el ejercicio 2010, de las ayudas a proyectos piloto de acción rural en zonas de agricultura de montaña previstas en el Decreto 242/2000, de 28 de noviembre, por el que se regulan las ayudas a proyectos piloto de acción rural en zonas de agricultura de montaña (BOPV, n.º 108, de 9 de junio de 2010), se establece que el volumen total de las ayudas a conceder procederá de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi y no superará la cantidad de 216.434 euros, sin perjuicio de su actualización en el caso de que se aprueben modificaciones presupuestarias de conformidad con la legislación vigente. En tal caso, la consignación presupuestaria que resulte de la aprobación de dichas modificaciones se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco mediante Resolución del Viceconsejero de Agricultura y Desarrollo Rural.

En este sentido, la Dirección de Desarrollo Rural y Litoral, ha acordado, previa realización de los trámites oportunos, la ampliación de los créditos propios destinados para el año 2010 en la cuantía de 400.000 euros. En consecuencia, el volumen de las ayudas a conceder para el ejercicio 2010 en la citada convocatoria asciende a la cantidad de 616.434 euros provenientes de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

De acuerdo con lo anteriormente dicho, de conformidad con lo previsto en el artículo 49.2 del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, así como en la mencionada Orden de 11 de marzo de 2010, procede la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de la precitada ampliación.

Horri jarraiki, hauxe

EBAZTEN DUT:

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2010eko martxoaren 11ko Aginduan jasotako ekonomia-baliabideen zenbateko berria argitara ematea: 616.434 eurokoa izango da. Agindu horren bitartez, 2010eko ekitaldirako deialdia egiten da mendi nekazaritzako eremuetan landa garapeneko proiektu aitzindarietarako laguntzak emateko. Laguntza horiek Mendi nekazaritzako eremuetan landa garapeneko proiektu aitzindarietarako laguntzak arautzeko azaroaren 28ko 242/2000 Dekretuan aurreikusi ziren (EHAA, 108. zk., 2010eko ekainaren 9koa). Aipatutako kopurua 2010 urterako ordainketa-kreditukoa da: Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretara bideratutako funts berekietakoak dira.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko abuztuaren 3a.

Nekazaritza eta Landa Garapeneko sailburuordea,
JOSÉ LUIS ANDA FERNÁNDEZ.

En su virtud,

RESUELVO:

Dar publicidad al nuevo importe de los recursos económicos recogido en la Orden de 11 de marzo de 2010, de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, por la que se procede a la convocatoria, para el ejercicio 2010, de las ayudas a proyectos piloto de acción rural en zonas de agricultura de montaña previstas en el Decreto 242/2000, de 28 de noviembre, por el que se regulan las ayudas a proyectos piloto de acción rural en zonas de agricultura de montaña (BOPV n.º 108, de 9 de junio de 2010), que asciende a la cantidad de 616.434 euros. La cantidad citada corresponden a crédito de pago para el año 2010 proveniente de fondos propios destinados en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 3 de agosto de 2010.

El Viceconsejero de Agricultura y Desarrollo Rural,
JOSÉ LUIS ANDA FERNÁNDEZ.